

Bestelako lankidetzak

103. zenb.

XLII. URTEA
2024 URTARRILA-EKAINA

ISSN 2530-3287

**María
Silvestre
Cabrera**

Soziologiako katedraduna
Deustuko Unibertsitatea

ORCID: [0000-0002-6928-5126](https://orcid.org/0000-0002-6928-5126)

maria.silvestre@deusto.es

Hizkuntzen irakaskuntzan eta erabileran genero-ikuspegia txertatzeari buruzko gogoeta: euskararen kasua

Artikulu honetan, gogoeta egiten da hezkuntzan genero-ikuspegia txertatzeari eta euskararen erabilera ez-sexistari buruz. Artikuluan, genero-ikuspegia irakaskuntzan eta ikerketan txertatzeko gida bat aurkezten da. Gida hori Deustuko Unibertsitatean koordinatu du artikulgileak, eta arreta berezia jarri du irakaskuntzan eta genero-ikuspegiaren ezarpenari jarraipena egiteko adierazleetan. Gai hori hizkuntzen eta, zehazki, euskararen irakaskuntzan izan dezakeen eraginarekin lotzen da, eta, beraz, irakasleen komunikazioan hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabiltzeari ere erreparatuko zaio.

Gako-hitzak

berdintasuna, generoa, hizkera ez-sexista, hizkera inklusiboa

1. SARRERA: GENERO-IKUSPEGIA

Politika publikoetan genero-ikuspegia zeharka sartzeari aho batez erabaki zen Nazio Batuek 1995ean Beijingen antolatutako Emakumeen Nazioarteko Konferentzian (UN Women, d. g.). Erabaki horren ondorioz, XXI. mendearen hasieran, orokortu egin zen berdintasunaren arloko legedia eta genero-ikuspegia zeharka sartzeari. Horren adibide dira 2004ko genero-indarkeriaren aurka erabateko babes emateko neurrien Legea, 2007ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lege Organikoa edo 2005eko Berdintasunerako Euskal Legea (2023an aldatua).

Une hartan, Europako Kontseiluak ere bere egin zuen genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna, eta honela definitu: prozesu politikoak antolatzea, hobetzea, garatzea eta ebaluatzea, neurri politikoak hartzeko orduan zeresana duten aktore guztiak politika, maila eta etapa guztietan sar dezaten genero-berdintasunaren ikuspegia (Instituto de las Mujeres, d. g.). Definizio horrek agerian uzten du genero-ikuspegiak ez diela soilik berdintasun-politikei eragiten, baizik eta zentzua dutela politika publiko guzti-guztietan. Esan nahi du, halaber, hasieratik bertatik aurreikusi behar dela eta adierazle bereziak behar dituela diagnostiko egokiak egin ahal izateko.

Hezkuntzan ere txerta daiteke genero-ikuspegia eta komenigarria da, gainera. Horrek gobernantza-eredu jakin bat eskatzen du, maila gorenean adierazitako konpromiso politiko bat, eta arrakastaz ezarri ahal izateko giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak.


Artikulu honetan, Deustuko Unibertsitateak egindako *Irakaskuntzan eta Ikerketan genero-ikuspegia txertatzeko gida* lanaren oinarriak aurkezten dira. Gidako adierazleetako batek hizkuntza inklusiboaren eta ez-sexistaren erabilera aipatzen du. Gai hau sakonago garatu da, eta euskararen erabilera ez-sexistari aplikatu zaio; jasota geratu da, hain zuzen, Deustuko Unibertsitateko Komunikazio Arloak egindako *Deustuko Unibertsitatean hizkuntza-ez sexista erabiltzeko jarraibideak* dokumentuan.

2. GENERO-IKUSPEGIA IRAKASKUNTZAN

Deustuko Unibertsitateak (DU) *Irakaskuntzan eta ikerketan genero-ikuspegia txertatzeko Gida* argitaratu zuen 2021ean, gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez, eta eskuragarri jarri zituen. Gida hori elkarlanean egin zuten Unibertsitateko hogeita hamar irakasle eta ikertzailek baino gehiagok, erantzuna emateko *Berdintasunaren III. Plan Instituzionalaren* ekintzetako bati eta DUK koordinatutako *H2020 GEARING-Roles (2019-2022)* Europako proiektuaren konpromisoetako bati. Proiektu horren helburu nagusia hau izan zen: sei berdintasun-plan diseinatu, ezarri eta ebaluatzea Europako sei erakundetan (bost unibertsitatetan eta ikerketa kudeatzeko, ebaluatzeko eta finantzatzeko zentro baten).

Gidan jasotzen denez, genero-ikuspegia irakaskuntzan txertatzeko proposatutako eredu gehienek ikaskuntzaren inguruneei, edukiei, metodologiari eta ebaluazioari erreparatzen diete. Hala agertzen da, besteak beste, AQUk (Agència per a la Qualitat del Sistema Universitari de Catalunya) 2019an proposatutako eskeman (ikus 1. irudia).

1. irudia. *Unibertsitateko irakaskuntzan genero-ikuspegia txertatzeko marko orokorra* (Iturria: AQU, 2019)



Gearing Roles partzuergoko kide den Oxford Brookes-eko Unibertsitateak eskuliburu bat editatu zuen lankidetzan arituta ikuspegia azaltzeko; hala, Europako zenbait unibertsitatetako irakasleek proposatutako jardunbide egoki batzuk jaso ziren. Adibideak aurkeztu baino lehen, eta horiek kopiatu ahal izateko ezinbesteko irizpide gisa, genero-ikuspegia aplikatzea erraztu eta sustatuko duen gobernantza-eredu baten beharra ezartzen du, eta baieztatzen du unibertsitateek genero-kontuak aintzat hartuko dituzten ekosistemak jarri behar dituztela martxan (Kitchener eta Humbert, 2021); alegia, ezin da genero-ikuspegia zeharka txertatu aldez aurretik konpromiso instituzionalik ez badago. Konpromiso horrek jakinarazita egon behar du, eta, kasurik onenean, planifikatuta.

DUko Gidan, adierazle horiek MAUD deritzon unibertsitatearen berezko ikas-irakaskuntza adierazgarriaren eredura egokitu ziren. Ereduek bost fase ditu (esperientzia-testuingurua, behaketa gogoetatsua, kontzeptualizazioa, esperimentazio aktiboa eta ebaluazioa), eta 16 adierazle formulatu eta definitu ziren, egiaztapen-eredu gisa, genero-ikuspegia txertatzeko moduari buruzko hausnarketa ahalbidetzeko eta, aldi berean, egindakoa ebaluatzeko:

1. hizkera inklusiboa eta ez-sexista;
2. hurbilketa interseksionala;
3. ikasleen autokontzientzia mailaren balorazioa;
4. gizartean dauden genero-aurreiritziak identifikatzea eta datu errealekin aldeatzea;
5. diziplinaren eremuan genero-diskriminazioa hautematea;
6. diziplinen oinarri teorikoetan dagoen genero-itsutasunaz jabetzea;
7. diziplinaren izaeraz hausnarketa genero-ikuspegitik, bai eta diziplina sostengatzen duten instituzioez ere;
8. emakumezko erreferenteen ekarpenak aintzat hartzea, bai esparru teoriko eta kontzeptualetan, bai metodologikoetan;
9. genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala aintzat hartzen dituzten ikuspegi kritikoak txertatzea;
10. sexuaren/generoaren arabera bereizitako adierazleak eta datuak erabiltzea, egoki denean;
11. emakumeen lidergoa, esperientzia eta ahotsak ikusaraztea;
12. genero-rol tradizionalak zalantzan jartzen dituzten ikas-jardueren sustapena;
13. parte hartzeko estrategia ez-diskriminatzaileak;
14. bibliografia orekatua eskaintzea autoreen izen osoekin, emakumeen ekarpena identifikatzeko;
15. estereotipoen pertzepzioaren aldaketa baloratzeko tresna kualitatiboak baliatzea;
16. askotariko ebaluazio-probak egitea.

Gidak adierazle bakoitza definitzen du eta ikasgelan ezartzeko zenbait jarduera proposatzen. Era berean, UDko unibertsitate-graduetako irakasgaien ikaskuntza-gidetatik ateratako adibideak aurkezten ditu. Adierazleetatik ondorioztatzen denez, horiek guztiak ez dira gauzatzen irakasleak edukiak helaraztean. Adierazle batzuek ikasleei, beren jarrerari, balioei eta harremanak izateko eta komunikatzeko moduei erreparatzen diete. Interesgarria da, halaber, ohartzea adierazle batzuek aurreiritzien eta diskriminazio-moduen detekzioa ere jorratzen dutela. Garrantzitsua da genero-ikuspegi interseksionala (Crenshaw, 1989), zeinaren arabera emakumeak pluralean ulertu behar diren, haien aniztasuna kontuan hartuta, eta, batez ere, elkarren artean gurutzatzen diren egiturazko desberdintasun-bektoreak aintzat hartuta, hala nola etnia, klase soziala, desgaitasuna, sexu-orientazioa, jatorria, erlijioa eta hizkuntza. Azkenik, genero-ikuspegiaren begirada androzentrikoa ere nabarmendu nahi izan dugu; izan ere, ezagutza-arlo guztietan ikusezin bihurtutako edo gutxietsitako ezagutza biltzeaz gain, gutxiengo sozial baten transmititutako eta legitimatutako ezagutza kanonikoa zalantzan jartzeko ere eskatzen digu, gutxiengo sozial horrek izan baitu, historikoki, ezagutzera eman beharreko jakintzak eta egileak lehenesteko ahalmena (Harding, 1993; Silvestre Cabrera et al., 2020). Stendhal-ek ongi esan zuenez, aurreikuspenik eduki ez eta emakume jaiotzen diren jenioak galdu egiten dira gizateriarentzat (Valcárcel, 2019) eta Virginia Woolf-ek adierazi zuen bezala, egile ezezaguna emakumea zen (Woolf, 1929).

3. HIZKERA INKLUSIBOA ETA HIZKERA EZ-SEXISTA

Hizkuntza gizarte-produktua da, errealitatearen pertzepzioan eragiten du eta gure pentsamendua eta munduaren ikuspegia baldintzatzen. *Comunicación Inclusiva en la Secretaría General del Consejo* izeneko agirian adierazten denez (Consejo de la Unión Europea, Secretaría General, 2018), hizkera inklusiboa eta aniztasuna eta berdintasuna

bultzatzen duten irudiak erabiltzeak modu erabakigarrian lagundu dezake joera diskriminatzaileak betikotu ez daitezen. Hizkera ez-sexistak emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasuna defendatzen du, eta ez ditu betikotzen genero-roleri buruzko hautemate estereotipatuak. Gida asko daude hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako, eta hemen nahikoa da DUren Komunikazio ez-sexistarako oinarrizko Gida aipatzea. DUko Komunikazio Arloak komunikazio ez-sexistarako oinarrizko gida bat egin zuen, eta oinarrizko gomendio praktikoak jasotzen dira bertan. Unibertsitateko Zuzendaritza Kontseiluak gomendatzen du eredu horri jarraitzea eta ikasleei jakinaraztea praktikan jar dezaten, bai ikasgelako interakzioan, bai ikasgelan eta ikasgelatik kanpo garatzen diren ikas-irakaskuntzako ahozko nahiz idatzizko jardueretan.

Gidan glosario interesgarri bat dago, genero-ikuspegia irakaskuntzan eta ikerketan ondo aplikatzeko funtsezkoak diren zenbait kontzeptu definitzen dituena. Glosario horretan jasota daude hizkera inklusiboaren, hizkera ez-sexistaren eta komunikazio ez-sexistaren definizioak.

- **Hizkera inklusiboa.**

Ahozko eta idatzizko adierazpenetan, ahal dela, hiztegi neutroa erabiltzen duena edo, neutrorik ezean, emakumezkoak eta gizonetzkoak agerian jarritzen dituena, emakumeak eta gizonak dauden egoeretan edo jardueretan maskulinoa orokortu gabe (Deustuko Unibertsitatea, 2021, 52.-53. or.)

- **Hizkera ez-sexista.**

Hizkera sexista bazterkeria modu bat da, emakumeen diskriminazio egoera indartzen duena eta estereotipoak sortzea sustatzen duena. Hizkuntza, ordea, aldaketarako tresna indartsua ere izan daiteke, hizkera baztertzailerak izan ditzakeen faktore diskriminatzaileak identifikatu eta ezabatuz gero. Hizkera ez-sexistak hizkuntzaren erabilerak eraldatzen ditu, emakumeak eta beste kolektibo batzuk aintzat hartzeko eta ordezkatzeko moduak bilatuz (Deustuko Unibertsitatea, 2021, 94. or.).

- **Komunikazio ez-sexista.**

Neutralez mozarrotuta, komunikabide hegemonikoen begirada patriarkala eta androzentrikoa da, ikuspuntu maskulinoa unibertsaltzat eta erreferentetzat erabiltzen duelako informazioa, publizitatea eta iritzia sortzeko orduan. Komunikazio tradizionalaren aurrean, komunikazio ez-sexista dago, genero rola eta estereotipoak gainditzea eta emakumeak arlo guztietan protagonista gisa ikusaraztea proposatzen duena eta ez bakarrik «biguntzat» jotzen diren arloetan: gizartea, kultura-ikuskizuna eta jendea-mundua. Emakumeek gizarteari egiten dizkioten ekarpenak eta dituzten borroak eta eskaerak ezagutarazi nahi ditu dimentsio guztietan eta egungo errealitatera hobeto egokituta, errealitatea aldakorra baita, eta ez baita duela hamarkada batzuetako bera. Bestalde, komunikazio ez-sexistak historikoki gizonentzat gordetako genero rol eta estereotipoak hautsi nahi ditu. Esate baterako, zaintzaile gisa irudikatzen ditu gizonak, eta haien nagusitasun edo menderatze jokabideak, indarkeriazkoak edo arriskuzkoak salatzen ditu. (Deustuko Unibertsitatea, 2021, 82. or.).

4. HIZKERA INKLUSIBOAREN ETA EZ-SEXISTAREN PROPOSAMENAK EUSKARAZ

Komunikazio ez-sexistarako *deustensis* gida honetan, euskara modu inklusiboagoan erabiltzeko gomendio batzuk ere jasotzen dira. Izan ere, nahiz eta euskaraz ez diren bereizten genero femeninoak eta maskulinoak latinetiko hizkuntzetan bezala, maskulinoa markatu edo lehenetsi dezake femeninoaren aurrean. Gidak euskararen erabilera ez-sexistarako egiten dituen gomendioak ditugu 1. taulan.

1. taula. Euskararen erabilera ez-sexistarako gomendioak
(Iturria: Deustuko Unibertsitatea, d.g. 6-9. or.).

EZ	BAI
Denok gara anaiak	Denok gara neba-arrebak
Erregeen bisita	Errege-erreginen bisita
Jaun agurgarriak: (gutunetan)	Jaun-andre agurgarriak: (gutunetan)
Jaun-andre agurgarria: (gutunetan)	Jaun/Andre agurgarria: (gutunetan) edo kargua baldin badakigu: Zuzendari agurgarria: Dekano agurgarria:
Aita-amaren baimen sinatua	Aitaren/Amaren baimen sinatua Aitaren edo amaren baimen sinatua Gurasoetako baten baimen sinatua
Seme-alabaren borondatea	Semearen/Alabaren borondatea
Indiarrek abegi ona egiten diete kanpotarrei eta emaztea ere eskaintzen diete (Berez, indiarrek gizonezkoak eta emakumezkoak dira)	Gizonezko indiarrek abegi ona egiten diete kanpotar gizonezkoei eta emaztea ere eskaintzen diete (gizonezko indiarrez ari garenez gero)
legegizon	legelari
enpresagizon	enpresaburu edo enpresari
itsasgizon	itsas langile
negozio-gizon	negozio jende
alkatesa	alkatea edo alkate andrea
aktorea	aktorea
dekana	dekanoa
tutora	tutorea
Andereño	Andre
Rajoy eta Soraya	(Mariano) Rajoy eta (Soraya) Saénz de Santa-maría
gizaki	jende, pertsona, lagun
gizarte	jendarte
gizarte-	sozial
anaitasuna	senidetasuna, adiskidetasuna
Frantziako iraultzaren ondorioz ezarri zen sufragio unibertsala	Frantziako iraultzaren ondorioz ezarri zen gizonezkoentzako sufragioa (gizonek baino ezin bazuten botoa eman, ez zen unibertsala)
Atenastarrek botoaren bitartez aukeratzen zituzten ordezkariak	Atenastar gizonezkoek botoaren bitartez aukeratzen zituzten ordezkariak (gizonezkoek bakarrik eta ordezkariak ere gizonezkoak ziren)

Gidak, halaber, gomendioak egiten ditu gaztelaniatik euskarara itzultzen ari garenerako; izan ere, euskaraz beharrezkoak ez diren eta erreproduzitu edo imitatu behar ez diren estrategia batzuk erabiltzen dira gaztelaniaz. 2. taulan jasotzen dira horiek.

Gomendio horiek erakusten dute hizkuntza bat modu sexistan edo baztertzailan erabiltzea ez dela soilik femeninoa dena aipatzea edo ez aipatzea; kontua ez dela bikoiztea, ez dela astuna izatea, eta are gutxiago irakurri ezin diren grafiak erabiltzea, hala nola «x» edo «@». Hizkera ez-sexista literatur hizkuntza izan daiteke, ekonomizatu egin dezake, eta oso eraginkorra izan daiteke komunikazioan. Baina gogoeta kritikoa egitea eskatzen du, zer-nola erabiltzen ditugun gure hizkuntzak eta zer-nolako errealitatea erakitzen duten. Hiztun bat jakitun bada zer-nolako garrantzia duten bere hitzek errealitatea eraikitzeko eta besteekiko harremanetan arau- eta balorazio-esparruak ezartzeko orduan, ingurune berdinzaleagoak eta inklusiboagoak bultzatuz komunikatuko da, ahoz zein idatziz.

2. taula. Euskararen erabilera ez-sexistarako gomendioak gaztelaniatik itzultzean.
(Iturria: Deustuko Unibertsitatea, d.g., 9. or.)

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
Alumnado, estudiantado (alumnos y alumnas)	Ikasleak
Profesorado, personal docente, claustro (profesoras y profesores)	Irakasleak
Electores (electores y electoras)	Hautesleak
Plantilla (trabajadoras y trabajadores, empleados y empleadas)	Langileak, enpleguatuak
Personal investigador (investigadoras e investigadores)	Ikertzaileak
Personas con titulación (titulados y tituladas)	Tituludunak, gradudunak
Personas participantes (los y las participantes)	Parte hartzaileak
Fuentes/Voces expertas (expertas y expertos)	Adituak
Las personas interesadas (los interesados y las interesadas)	Interesdunak
Las personas usuarias (las usuarias y los usuarios)	Erabiltzaileak
La clase política (las políticas y los políticos)	Politikariak
La población donostiarra (los y las donostiarras)	Donostiarrak
La dirección (la directora o el director)	Zuzendaria
La ciudadanía (los ciudadanos y las ciudadanas)	Herritarrak
Las familias (madres y padres)	Gurasoak

Era berean, hizkuntza bat irakasteko erantzukizuna dutenek, orobat, erantzukizuna dute hizkuntzaren potentzialtasun osoa erakusteko eta hizkuntzek adierazten eta transmititzen dituzten joerak, sarritan ikusezinak eta inkontzienteak, ikusarazteko ere bai. Hizkuntza eboluzionatuz doa, aldatu egiten da, errealitate berrietara egokitzen da, eta irauten duten aldaketak hiztunek onartzen eta orokortzen dituztenak dira; beraz, hizkuntza baten erabilera inklusiboagoa izango da gizartea inklusiboagoa bada, eta ez da hain sexista izango, baldin eta gizarte hori osatzen dutenak komunitate berdinzaleago bat lortzeko borrokatzen badira. Ahalegina gehiengoarena bada, askoz handiagoa izango da ahalegin hori hizkuntzaren erabilerara hedatzeko aukera.

5. ONDORIOEN LABURPENEA

Artikulu honetan, Deustuko Unibertsitateak genero-ikuspegia irakaskuntzan txertatzeko egindako lana zabaltzen da, jardunbide egokiak eta aplikatutako proposamenak ezagutzeko interesa dutenentzat inspirazio izan dadin. Proposamenak hamasei adierazle jasotzen ditu bere aplikazioa antolatzeko eta ebaluatzeko. Hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabiltzea, interseksionalitatea ezinbestean kontuan hartzea eta genero-rol tradizionalak onartzearen ondoriozko aurreiritziak eta diskriminazioak prebenitzea eta salatzea.

Bigarrenik, Deustuko Unibertsitatean hizkuntza ez-sexista erabiltzeko jarraibideak lanak euskararako egindako gomendioak jasotzen dira. Euskaraz ez da generorik bereizten, eta, beraz, inklusiboagotzat eta ez hain sexistatzat hartzen da, baina euskaraz ere gertatzen dira joera patriarkal batzuk eta zuzen daitezke. Artikuluan adierazten den bezala, hizkuntzen erabileran gertatzen diren aldaketak eta hizkuntzak gizarte-aldaketetara egokitzeko modua, funtsean, hiztunek txertatzeko edo baztertzeko eraren arabera izango da; beraz, kultura, jarrera eta balorazio aldetik berdinzaleagoak eta inklusiboagoak diren gizarteak sustatzeak aldaketen erabilera orokortzen lagunduko du, erabilera hori ezin baita inondik inora aginduzkoa izan.

Itzultzailea: IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

Bibliografia

- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, "Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género". Boletín Oficial del Estado, Madril, 2004ko abenduaren 29koa, 313. zenbakia.
<https://www.boe.es/eli/es/lo/2004/12/28/1/con>
- 3/2004 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, "para la igualdad efectiva de mujeres y hombres". Boletín Oficial del Estado, Madril, 2007ko martxoaren 23koa, 71. zenbakia.
<https://www.boe.es/eli/es/lo/2007/03/22/3/con>
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria. Gasteiz, 2005eko martxoaren 2a, 42. zenbakia. <https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/l/2005/02/18/4/dof/eus/html/webleg00-confich/eu/>
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria. Gasteiz, 2023ko martxoaren 16a, 60. zenbakia.
<https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/dlg/2023/03/16/1/dof/eus/html/webleg00-confich/eu/>
- AQU, Agència per a la Qualitat del Sistema Universitari de Catalunya. (2019). *Marco general para la incorporación de la perspectiva de género en la docencia universitaria*. <https://www.aqu.cat/es/doc/Universitats/Metodologia/Marco-general-para-la-incorporacion-de-la-perspectiva-de-genero-en-la-docencia-universitaria>
- Crenshaw, K. W. (1989). *Demarginalizing the intersection of race and sex: a black feminist critique of antidiscrimination doctrine, Feminist Theory and Antiracist Politics*. University of Chicago Legal Forum.
- Secretaría General del Consejo de Europa. (2018). *Comunicación Inclusiva en la Secretaría General del Consejo*. <https://www.consilium.europa.eu/media/35447/es brochure-inclusive-communication-in-the-gsc.pdf>
- Deustuko Unibertsitatea. (d.g.). *Guía básica para la comunicación no sexista en la UD*. Deustuko Unibertsitatean hizkuntza ez-sexista erabiltzeko jarraibideak. *Guidelines for Nonsexist Language in University of Deusto*. Hemendik eskuratua 2024ko martxoaren 25ean:
<https://www.deusto.es/document/deusto/es/guia-basica-para-la-comunicacion-no-sexista-en-la-universidad-de-deusto.pdf>
- Deustuko Unibertsitatea. (2021). *Irakaskuntzan eta ikerketan genero ikuspegia txertatzeko gida*. Deustuko Unibertsitateko Argitalpenak.
<https://www.deusto.es/document/deusto/eu/guia-perspectiva-de-genero-1.pdf>
- Harding, S. (1993). Rethinking Standpoint Epistemology: What is Strong Objectivity. In L. Alcoff eta E. Potter (Ed.), *Feminist epistemologies* (101-120. or.). Routledge.
- Instituto de las Mujeres. Ministerio de Igualdad. Gobierno de España. (d. g.). *Programa Mainstreaming de Género*. <https://www.inmujeres.gob.es/areasTematicas/mainstreaming/home.htm>
- Kitchener, M. eta Humbert, A. L. (ed.). (2021). *Gearing Roles. Handbook for Creating a Gender Sensitive Curriculum Teaching and Learning Strategies*. The Centre for Diversity Policy Research eta Oxford CAED.
https://gearingroles.eu/wp-content/uploads/2022/07/GEARING-HANDBOOK_OUTLINE_final-draft-revisions-MK_300622.pdf
- Silvestre Cabrera M, López Belloso M eta Royo Prieto, R. (2020). La aplicación de la Feminist Standpoint Theory en la investigación social. *Investigaciones Feministas*, 11(2), 307-318. <https://doi.org/10.5209/infe.66034>
- UN Women. (d. g.). *Fourth World Conference on Women*. Hemendik eskuratua 2024ko martxoaren 27an:
<https://www.un.org/womenwatch/daw/beijing/fwcwn.html>
- Valcárcel, A. (2019). *Ahora, feminismo. Cuestiones candentes y frentes abiertos*. Cátedra.
- Woolf, V. (1929). *A Room of One's Own*. Cambridge University Press.